

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

### Internet aprobetxatuta:

- ✓ EiTbko *Barre libre* izeneko saioko [bideo honetan](#), Ane Gabarain aktoreak umoretsu eta natural-natural azalduko digu zerk ematen dion nazka. **Ikusi** bideoa eta **egin** zerrenda bat, hari nazka ematen dioten egoerekin. Ondoren, zuk **grabatu** bideo laburra, baina, kasu honetan, azaltzeko, modu informalean, **zerk haserrearazten zaituen**.
- ✓ **Geratu** ikaskide batekin, eta **banatu** zuen artean Arantxa Urretabizkaiaren **bi artikulua hauek**. **Irakurri**, nork berea, **egin** laburpentxo, eta **azaldu elkarri**. Ondoren, komentatu ea zer iruditu zaizuen egilearen iritzia, ea ados zaudeten, zergatik... *Barra libre*, zuen iritziari bide emateko!!
  - [Zorioneko mugikorra](#).
  - [Besteekiko errespetua](#).
- ✓ **Entzun** *Errespetu- eta motibazio-falta eskoletan* izeneko [audioa](#). Solasaldi bateko hainbat pasarte dira, eta eskoletako arazoak dituzte aipagai: belaunaldi arteko diferentzia, gizarteko balore-galeraren isla gazteen artean, eskola eta familia arteko desoreka... Entzun ondoren, **idatzi** labur-labur zure iritzia, eta igo **euskaltegiaren blogera**. Aurretik, nahi izanez gero, irakasleari eman, gainbegiratu bat eman diezaion.
- ✓ **Irakurri** *Internet eta eskuko telefonoa* izeneko [testua](#). Baliabide horiek erabiltzeak ere heziera ona eskatzen dute. Arau orokor gisa, esan genezake pertsona bakoitzak aztertu behar duela egoki jokatzen zein portaera izan behar duen. Sen ona eta besteekiko begirunea kontuan hartuz gero, ziur egon asmatuko dugula. Testu honetan, baliabide horiek egoki erabiltzeko hainbat argibide eta iradokizun aurkituko dituzu. Behin irakurrita, idatzi antzeko dekalogo bat honako gai hauetako baten inguruan: *Kirol balioen dekalogo / Euskaltegian ondo portatzeko aholkuak / Partxisean ere adeitsu / Ligotean ere errespetua nagusi / Naturarekiko praktika onen gida...* Ondoren, igo **euskaltegiaren blogera**. Aurretik, nahi izanez gero, irakasleari eman, gainbegiratu bat eman diezaion.
- ✓ Egia beti, eta gezurra inoiz ez. Halaxe agintzen omen du sen onak. Baina horrela al da? **Geratu**, oraingoan, beste ikaskide batekin 😊, eta **banatu** zuen artean **bi berri labur hauek**. **Irakurri**, nork berea, eta **azal iezaiozue elkarri**.
  - [Nahi duguna](#). "Ez zait gustatzen beti pentsatzen duena esaten duen jendea", horrela hasten du Onintza Enbeitak bere iritzi-artikulua. Irakurri osorik, prestatu laburpentxo bat, eta kontatu ikaskideari: zer esaten duen Onintzak, zer iritzi duzun horren inguruan...
  - [Gezurrik ez, mesedez!](#) "Audientzia datuak ikusita euskaldun gehienak Telecinco ikusten ari dira: Salvame. Audientziek ez dute engainatzen, nor da orain demagogoa?", horrela amaitzen du Oihan Vegak bere iritzi-artikulua. Irakurri osorik, prestatu laburpentxo bat, eta kontatu ikaskideari: zer esaten duen Oihanek, zer iritzi duzun horren inguruan...